

**AKORDIOA, 2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION ENPLEGU PUBLIKOA EGONKORTZEKO EZ OHIKO PROZEDUREN BIDEZ KARRERAKO FUNTZIONARIOA IZATEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAIARENA, ESKALA GUZTIETAKO DEIALDI ESPEZIFIKOEN BEHIN-BEHINEKO AZKEN KALIFIKAZIOA ONARTZEN DUENA. 2022KO URRIAREN 20KO EBAZPENAREN BIDEZ EGIN ZEN DEIALDIA.**

II. eranskineko 8.7 oinarri orokorrak honako hau, deialdiari dagokionez, ezartzen du: "

*8.7.– Deialdi espezifikoko bakoitzeko azken kalifikazioa.*

*Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa hau izango da:*

- (...)
- *Merezimendu lehiaketaren bidezko deialdi espezifikoetan, lehiaketa faseetako puntuazioen eta euskarako puntuazioaren batura.*

*Deialdi espezifikoko bakoitzeko behin-behineko kalifikazioa erakundearen web gunean argitaratuko da lortutako puntuazioaren arabera ordenatutako zerrendan, eta adierazita izenabizenak eta NANaren edo atzeritarren, pasaportearen edo agiri baliokidearen identifikazio zenbakiaren ausazko lau zifra.*

*Hautagaien artean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek ordena honetan aplikatuz erabakiko da hurrenkera:*

(...)

<i>Merezimendu lehiaketaren bidezko hautaketa sistema</i>
---

- 1) *Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazioko lan esperientzian, deialdiko eskala berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.*
- 2) *Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.*
- 3) *Puntuaziorik handiena merezimendu profesionalen atalean.*
- 4) *Puntuaziorik handiena hautaketa prozesuen atalean.*
- 5) *Puntuaziorik handiena lan poltsen atalean.*
- 6) *Azaldutakoaren arabera, epaimahaiak hautagaiak ordenatu ditu, oinarrietan berdinketa hausteko ezarritako irizpideak aplikatuz.*
- 7) *Puntuaziorik handiena beste titulazio ofizialen atalean.*
- 8) *Puntuaziorik handiena EAEko hizkuntza ez-ofizialen atalean.*
- 9) *Berdinketa apurto ez bada, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia % 40ren azpitik dagoen administrazioko talde, kategoria eta espezialitateetan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko edo lanean gora egiteko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.*
- 10) *Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta daudenen artean UPV/EHUK egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkera ezarriko da.*

Azaldutakoaren arabera, epaimahaiak adierazitako berdinketa hausteko irizpideak aplikatuz ordenatu ditu izangaiak.

Horrenbestez, hautaketa-prozesu honetako epaimahaia bilduta, eta adierazitako oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau erabaki du:

**LEHENENGOA.**– Ez ohiko prozesuko Eskala guztietako deialdi espezifikoen gaitutuen behin-behineko azken kalifikazioa onartzea, lortutako puntuazioaren arabera eta hautaketa-prozesuko fase guztietako nota partzialak jarrita.

**BIGARRENA.**– Horretarako gaitutako UPV/EHUko web-orrian eta UPV/EHUko enplegu-atarian iragarkia argitaratzea ([https://gestionenplegu.ehu.es/jobsite\\_g/euskera/generico\\_login.jsp](https://gestionenplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp)); gaitutuen behin-behineko kalifikazioaren zerrenda hori kontsultatzeko.

**HIRUGARRENA.** – Zazpi (7) egun balioduneko epea zabaltzea, erabaki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hautagaiek erreklamazioak egin ditzaten, hala badagokio, bidezko erreklamazioa egin dezaten UPV/EHUren egoitza elektronikoan (<https://egoitza.ehu.eus/es>) eta 5.3 oinarri orokorrean azaldutako lekuetan.

Leioan, sinadura elektronikoan agertzen den datan,

Epaimahaiko idazkaria

Arantza Ibabe Lujambio